



WiFi etxean..... hobe EZ

Gero eta gehiago erabiltzen dugu WiFi gure etxean. Internetarekin konektatzeko erraztasuna eta erosotasunak eta telefono-operadorek egiten duten eskaintzak lagundu dute bere zabalpena handitzen.

Hala ere, inork ez digu azalpenik ematen uhin hauen kontrolik gabeko zabalpenak eta esposizio iraunkorrak gure osasunari ekar diezaioketen arriskuez, gaur egun “**Kutsadura elektromagnetikoa**” izenez ezagutzen denaz (Antena eta telefono mugikorrek sortzen dituzten uhinekin batera).

Ikerketa zientifiko ugariaren arabera kutsadura elektromagnetiko honek kalteak sor ditzake zefalea, loezina, migraina, fibromialgia, jateko gogo eza, oroimen eta entzumen arazoak baita mota desberdinetako tumoreak ere.

Jendaurreko informaziorik eza dela eta batek baino gehiagok esango du hauek “ekologisten” betiko kontuak direla. Alabaina, **2011ko maiatzan bai Osasunerako Munduko Antolakundeak (OMS) bai Europako Kontseiluak** ebazpen argigarriak argitaratu dituzte kutsadura mota berri honek ekartzen dituen arriskuez ohartarazten gaituztelarik.

2011ko maiatzaren 27ko datarekin **Europako Kontseiluak “Eremu elektromagnetikoen sor ditzaketan arriskuez eta beren eragina ingurugiroan” 1815** zenbakiko ebazpena jaulki du. Eta besteak beste dio:

-ARRETAREN PRINTZIOA:

5... Beste aldetik, ikerketa zientifikoa arriskua guztiz zehazteko gai ez denean ezarri behar da arreta printzipioa, batez ere biztanleriaren esposizioa handitzen doanean, eta kalteberagoak diren taldeekin bereziki, umeak eta gazteak hain zuzen ere, alerta goiztiarrak gutxiesteagatik eta garaiz ez ekiteagatik giza eta diru kalte handiak sor

-BABES NEURRIAK ORAIN HARTU:

6.. Ikerketa zientifiko berri eta froga kliniko gehiagoren zain egonik, osasunerako arrisku ezagunak ekiditeko inolako neurririk ez hartzeak kalte ekonomiko handia ekar dezake, amianto, beruna gasolinan edota tabakoaren

-KABLE BIDEZKO KONEXIOA ERABILI ETA MUGIKORRA GUTXIAGO ERABILI:

8.3.2. Orokorrean adin gutxiko guztientzat eta bereziki eskola eta ikasgeletan, Internetekin konektatzeko kable bidezko konexioei lehentasuna eman. Halaber, zorrotz arautu telefono mugikorren erabilera ikastetxe barruan.

LABURBILDUZ:

-Ikastetxeetan WiFi eta telefono mugikorren erabilerarekin arreta neurriak hartu behar badira, arrazoi gehiagoz geure etxean.

-Internetekin konektatzeko kablea erabili. Wifiren erabilera ezinbestekoa bazaizu erabili soilik behar duzunean eta gero indargabe ezazu. Horrela ekidingo duzu bere uhinekiko etengabeko esposizioa, batez ere gaueko lo orduetan.

-Telefono mugikorra neurritz erabili eta ez utzi zure seme-alaba txikiei erabiltzen.

Zure familia, auzoko eta zure osasunagatik

WiFi etxean hobe EZ

Ebazpen osoak irakurtzeko:

Europako Kontseilua: <http://www.next-up.org/Newssoftheworld/2011.php>

OMS: <http://antenano.blogspot.com/2011/05/la-oms-relaciona-el-uso-del-movil-con.html>





WiFi etxean..... hobe EZ

EUROPAKO KONTSEILUAREN 1815 EBAZPENA (2011-05-27)

“Ere mu elektromagnetikoe k sor ditzaketen arriskuez eta beren eragina ingurugiroan”

5... Beste aldetik, ikerketa zientifikoa arriskua guztiz zehazteko gai ez denean ezarri behar da arreta printzipioa, batez ere biztanleriaren esposizioa handitzen doanean, eta kalteberagoak diren taldeekin bereziki, umeak eta gazteak hain zuzen ere, alerta goiztiarrak gutxiesteagatik eta garaiz ez ekiteagatik giza eta diru kalte handiak sor

8.3.2. Orokorrean adin gutxiko guztientzat eta bereziki eskola eta ikasgeletan, Internetekin konektatzeko kable bidezko konexioei lehentasuna eman. Halaber, zorrotz arautu telefono mugikorren erabilera ikastetxe barruan.



Zure familia, auzoko eta zure osasunagatik

WiFi etxean hobe EZ

